

BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA SAILA

4321

AGINDUA, 2019ko irailaren 10ekoa, Hezkuntzako sailburuarena, zeinaren bidez aparteko dirulaguntzetarako deialdia egiten baita, iritsi berri diren ikasleak hizkuntzan murgiltzeko programak hobetzeko. (2H. Hezkuntza inklusioa eta aniztasunerako arreta).

Hezkuntza Sailak, hezkuntza kultura anitzeko testuingurura egokitu behar dela ohartuta, kulturarteko hezkuntza-eredu bat garatu nahi du, euskal hezkuntza-sisteman berdintasuna eta aniztasunarekiko errespetua lortzeko. Ikastetxeetan kultura-aniztasuna onartzea funtsezkoa da benetako kulturarteko gizarteak lortzeko.

Hezkuntza-sisteman sartu berriak diren ikasle etorkinei laguntzeko, ezinbestekoa da hizkuntza ofizialetan komunikatzeko gaitasuna hobetzea, eta kulturartekotasuna sustatzeko programak ezarri behar dira ikastetxeetan.

Aniztasun horri erantzuteko, ikastetxeek zenbait deialdi dituzte, zeinek eragina baitute, batetik, irakasleen prestakuntza etengabea («Prest Gara», «Bikaintasunerantz», «Eleaniztasunerantz»), eta, bestetik, ikasleekiko jarduera zehatzetan (kulturartekotasuna sustatzeko programak, hizkuntza indartzeko programak, hezkuntzan berriaz sendotzeko programak, curriculum-aniztasunaren bidez ikaskuntza eta errendimendua hobetzeko programak).

Honelako programen bidez, besteak beste, honako hau lortu nahi da: ikastetxeak hausnarretako eta hobekuntzako prozesu bat abiatzea kultura aniztasunaren inguruan, eta, testuinguru eraldatzeko prozesuak egiten ari diren ikastetxeen kasuan, baliabideak integratzea eta haien eragingarritasuna optimizatzea. Hizkuntza-indartzea ikasle hasi berriei zuzenduta dago, zehatz esanda, Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza ofizialak ez jakitearekin lotutako komunikazio-zailtasun nabarmenak izateagatik hizkuntza indartzeko plangintza bat behar duten ikasleei.

Gaur egun, nabarmen handitu da geletara ohiko matrikula-epeaz kanpo sartzen diren ikasleak, eta gero eta anitzagoak dira haien profil soziolinguistikoak; hortaz, ikuspegi eta metodo berriak garatu behar dira haiei harrera egitea eta hizkuntzan murgiltzea errazteko, eta lehenengo urratsa izan daitezen ikasle horiek etorkizunean hezkuntzan nahiz gizartearen arrakasta lortzeko.

Egindako kanpo-ebaluazioek agerian utzi dute eskolako porrota, hein batean, komunikazio-hizkuntzan gaitasun falta izateari zor zaiola. Beraz, komunikazio-maila egokia bermatzea oso lagungarria da ekitatea, gizarte-inklusioa eta hezkuntza-sistemak bilatzen duen hezkuntza-kalitatea ahalbidetzeko.

Ohiz bestera, ikasle atzerritarren eta bekadunen ehuneko esanguratsu bat duten ikastetxeei lagundu nahi zaie, iritsi berri diren ikasleak hizkuntzan murgiltzeko dituzten programak finka ditzaten.

Kontuan harturik zer dioten: Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen apirilaren 11ko 79/2017 Dekretuak; Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartu zuen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren VI. tituluak –Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioaren eremuko dirulaguntzak erregulatzeari buruzkoa–; Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak, eta oro har aplikatzekoak diren gainerako xedapenek, honako hau

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– Xedea eta aurrekontu-zuzkidura.

1.– Agindu honen xedea da aparteko dirulaguntzen deialdia egitea eta horretarako oinarriak ezartzea iritsi berri diren ikasleak hizkuntzan murgiltzeko programak garatzeko. Programa horien bidez, komunikatzeko nahikoa gaitasun eman nahi zaie iritsi berri diren ikasleei; hasiera batean ikastetxean harremanak izan ahal ditzaten, eta, ondoren, inklusioa eta eskolako arrakasta lortzeko behar adina gaitasun izan dezaten hizkuntzan komunikatzeko 2019-2020 ikasturtean.

2.– Hizkuntzan murgiltzeko programaren hartzailleak hauek izango dira: gure hezkuntza-sistemara iritsi berri diren ikasleak (azken 2 ikasturteetan), Lehen Hezkuntzako 4., 5. eta 6. mailan nahiz Bigarren Hezkuntzako 1. eta 2. mailan egon eta eskolako hizkuntzak (euskara eta gaztelania) ikasteko premia dutenak.

3.– Agindu honen bidez deitutako dirulaguntzak finantzatzeko ehun eta berrogeita hamar mila euro (150.000) jarri dira, honela banaturik:

Lehen Hezkuntza: ehun mila (100.000) euro.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza: berrogeita hamar mila (50.000) euro.

2. artikulua.– Izapidetze elektronikoa.

1.– Erakunde interesdunek bide elektronikoak erabili beharko dituzte prozedura honen izapide guztiak egiteko. Izan ere, hala xedatu dute Administrazio Elektronikoari buruzko otsailaren 21eko 21/2012 Dekretuak eta E-Administrazioarako –Platea– Plataforma Teknologikoa onartu zuen Informatika eta Telekomunikazioetako zuzendariaren 2006ko otsailaren 9ko Ebazpenak.

2.– Egoitza elektronikoa honetan eskura daitezke eskabideak, erantzukizunpeko adierazpenak eta gainerako ereduak izapidetzeko moduari buruzko zehaztasunak: https://www.euskadi.eus/diru_laguntza/2019/programa-especifico-diversidad/y22-izapide/eu/

Eskabidearen osteko izapideak helbide honetan egingo dira: <https://www.euskadi.eus/nirekudeaketak>.

3. artikulua.– Eskabideak eta inprimakiak aurkeztea.

1.– Eskabidearekin batera (horren eredu II. eranskinekoa da), ikastetxe eskatzaileek esku hartzeko proposamena aurkeztu beharko dute, agindu honen 7.2 artikuluan adierazitako jarraibideen arabera eta honako hauek jasota:

a) Ikastetxeak ikasle atzerritarren, ikasle etorkinen eta ikasle iritsi berrien aniztasunarekin zerikusia duten jarduerak sustatzen egin duen ibilbidearen deskripzioa.

b) Diagnostikoa:

– Premien zehaztapena.

– Aurkeztutako lehentasunak eta argumentuak.

c) Proposamena zer mailatarako den: Lehen Hezkuntza eta/edo Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza. Maila baterako baino gehiagorako bada, argi zehaztuko dira mailok.

d) Helburu orokorrak eta helburu espezifikoak.

e) Jarduerak:

- Irakasleei zuzendutako jarduerak.
- Ikasleei zuzendutako jarduerak.

f) Ebaluazioa:

- Proiektuan markatutako helburuen lorpenaren ebaluazio-irizpideak eta adierazleak.
- Ebaluatzeko tresnak eta uneak.

g) Aurrekontua:

– Eskatutako laguntzaren banakapenari buruzko azalpenak. Banakapen horretan barne hartuko da zein mailari edo maileri bideratzen zaien proposamena.

h) Proiektuaren eragina:

- Eraginpeko irakasle eta taldeen kopurua.
- Proiektua zabaltzeko eta hezkuntza-komunitatearen eta familien parte-hartze aktiboa sustatzeko neurriak.

2.– Bitarteko elektronikoak erabiliz aurkeztu beharko dira eskabideak, <https://www.euskadi.eus/egoitza/elektronikoan>, eta, horretarako hilabete izango da, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera.

3.– Eskabide-eredua egoitza elektronikoan egongo da eskuragarri: <https://www.euskadi.eus/dirulaguntza/2019/programa-especifico-diversidad/y22-izapide/eu/>

4.– Erakunde eskatzaileek euskaraz edo gaztelaniaz aurkeztu ahal izango dituzte eskabidea eta gainerako dokumentuak. Halaber, prozedura osoan zehar, eskatzaileak hautatzen duen hizkuntza erabiliko da, Euskararen Erabilera Normalizatzeari buruzko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legearen 5.2.a) eta 6.1 artikuluetan xedatzen den moduan.

4. artikulua.– Erakunde onuradunak.

Deialdi honen onuradun izan daitezke Euskal Autonomia Erkidegoan kokatutako ikastetxe pribatuak, baldin eta itundutako unitateak badituzte Lehen Hezkuntzan eta/edo Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan.

5. artikulua.– Erakunde eskatzaileen betekizunak.

1.– Erakunde eskatzaileek honako betekizun hauek bete beharko dituzte:

– 2018-2019 ikasturtean, ikasle atzerritarrak % 20 edo gehiago izatea, aurreko artikuluan jasotako maila batean edo gehiagotan. Dagokion mailako ikasle guztiak kontuan harturik kalkulatu da ehuneko hori.

– 2018-2019 ikasturtean, ikasle bekadunak % 50 edo gehiago izatea, aurreko artikuluan jasotako maila batean edo gehiagotan. Dagokion mailako ikasle guztiak kontuan harturik kalkulatu da ehuneko hori.

– Indarrean dauden xedapenek zergen eta gizarte segurantzaren arloetan ezartzen dituzten betebeharretan egunean egotea. Onartu den dirulaguntza guztiz ordaindu arte eutsi beharko zaio eskakizun horri.

– Ordainduta izatea dirulaguntzak itzultzeko betebeharrak. Onartu den dirulaguntza guztiz ordaindu arte eutsi beharko zaio eskakizun horri.

2.– Ezin izango dira onuradun izan honako egoeraren hauetan dauden erakundeak:

– Dirulaguntzei buruzko 2013ko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikularen 2. eta 3. zenbakietan azaldutako egoeraren batean daudenak.

– Dirulaguntzak edo laguntza publikoak eskuratzeko aukera ukatzen dien zigor administratiborik edo penalik dutenak, bai eta dirulaguntzak jasotzeko legezko debekurik dutenak ere, batez ere sexuaren bereizkeriaren ondoriozkoak badira, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen azken xedapenetatik seigarrenari jarraikiz.

3.– Onuradunei dirulaguntzak eman eta, hala dagokionean, ordaintzeko, amaiturik egon behar da itzulketa- edo zehapen-prozedura oro, baldin eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta haren erakunde autonomoek emandako izaera bereko laguntzen edo dirulaguntzen esparruan hasi eta oraindik izapidetze-fasean badago.

6. artikulua.– Erakunde eskatzailearen zenbait betekizun egiaztatzea.

1.– Hezkuntza Saileko Estatistika Zerbitzuak emango du ikastetxe bakoitzeko ikasle atzeritarren kopurua. Hezkuntza Berrizatzeko Zuzendaritzak kalkulatuko ditu ikasle atzeritarren eta bekadunen ehunekoak, Hezkuntza Saileko Estatistika Zerbitzuan dauden datuak kontuan hartuz. Datu guztiak 2018-2019 ikasturteari dagozkionak izango dira.

Ikastetxeek Administrazioa jo ahal izango dute ikasle atzeritarren eta bekadunen datuak kontsultatzea.

Dirulaguntza-eskabidea aurkeztuta, eskatzaileak baimena emango du dirulaguntza ematen duen organoak zuzenean eskuratu ditzan aipatutako datuak.

2.– Dirulaguntza-eskabidea aurkeztean, eskatzaileak baimena ematen dio laguntza ematen duen organoari zuzenean egiaztatzeko zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen dituztela laguntzak eskatzen dituzten erakundeek; izan ere, organo kudeatzaileak automatikoki eta behar beste aldiz egiaztatuko du hori, eta ez du eskatzaileen baimenik beharko horretarako, Dirulaguntzen Erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 88/2006 Errege Dekretuaren 22. artikuluan ezarritakoari jarraikiz eta Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testuategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretua aplikatuz. Hala ere, erakunde eskatzaileak berariaz uko egin diezaioke baimen horri, eta, hala eginez gero, aipatutako betebeharren ziurtagiriak aurkeztu beharko ditu, Dirulaguntzei buruzko Erregelamendu orokorraren 22. artikuluan azaltzen den eran.

3.– Eskarrietan aukera izango da laguntzak eskatzen dituen erakundeak berariaz adieraz dezan baimena ematen diola organo kudeatzaileari gainerako datu edo dokumentu guztiak lortu edo egiaztatzeko, hargatik eragotzi gabe Administrazio Publikoak egiaztapen, kontrol eta ikuskaritzaren alorrean dituen ahalmenak.

4.– Azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuan egindako aldaketa aplikatuz, honako betekizun hauek egiaztatuko dira, eskabidean txertatuko den erantzukizuneko adierazpen baten bidez:

– Helburu bererako dirulaguntzak, laguntzak, diru-sarrerak edo beste baliabide batzuk eskatu, eta, hala badagokio, jaso dituztela adierazi beharko dute, edozein administrazioetatik edo erakunde publiko zein pribatutatik etorriak direla ere.

– Pertsona edo erakunde eskatzaileak ez izatea dirulaguntza edo laguntza publikoak eskuratzeko aukera ukatzen dion zehapen administratibo edo penalik, ez eta dirulaguntzak jasotzeko legezko debekurik ere, sexuagatiko diskriminazioaren ondoriozko lege-debekuak barne, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen azken xedapenetatik seigarrenari jarraikiz.

– Ordainduta izatea dirulaguntzak itzultzeko betebeharrak.

– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrek edo/eta haren erakunde autonomoek emandako izaera bereko laguntza edo dirulaguntzak direla-eta hasitako edozein itzultze- edo zigor-prozeduratan sartuta egotea edo ez egotea.

– Borondatezko konkurtsoaren deklarazioa ez eskatu izatea, edozein prozeduratan kaudimengabetzat ez jo izatea, konkurtsoan deklaraturik ez egotea, salbu eta horretan eraginkortasuna hartu badu hitzarmen batek, esku-hartze judizialaren pean ez egotea edo desgaitua ez izatea, Konkurtsoari buruzko uztailaren 9ko 22/2003 Legearen arabera, konkurtsoaren kalifikazio-epaian ezarritako desgaitze-aldia amaitu gabe.

– Kausaren batean erruduntzat jotzearen, Administrazioarekin egindako edozein kontraturen amaiera irmoa emanda ez egotea.

– Pertsona fisikoa, merkataritza-sozietateetako administratzaileak edo beste pertsona juridiko batzuen legezko ordezkariak dutenak ez daude honako lege hauetan jasotako kasuren batean: martxoaren 30eko 3/2015 Legea, Estatuko Administrazio Orokorreko goi-kargudunen jarduna arautzen duena, eta abenduaren 26ko 53/1984 Legea, Administrazio publikoen zerbitzura dauden langileen bateraezintasunena; edo, ez dira Hauteskunde Erregimen Orokorren ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoan araututako hautapenezko karguak, lege horretan edo gai horiek arautzen dituen Euskal Autonomia Erkidegoko arauak ezarritako baldintzetan.

– Erregelamenduz zerga-paradisua gisa kalifikatutako herrialde edo lurralde batean ez izatea zerga-egoitza.

– Era berean, erakunde eskatzaileak adieraziko du eskabidean eta dokumentazioan jasotako datuak egiazkoak direla, eta laguntza hauen onuradun izateko indarrean den araudian ezarritako betekizunak betetzen dituela.

7. artikulua.– Diruz lagundu daitezkeen jarduerak.

1.– Honako jarduera hauek lagundu ahal izango dira diruz: atzerritik iritsi berri diren eta Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako itunpeko ikastetxeetan eskolatu diren ikasleak hizkuntza murgiltzeko programa bat diseinatzea, garatzea eta probatzea.

2.– Diruz lagundu daitezkeen jardueren tipologia:

a) Irakasleen prestakuntza. Hizkuntza indartzeko irakasleei prestakuntza ematea, iritsi berri diren ikasleekin esku-hartze intentsiboko eredu berri bat sortzeko, Hizkuntzen Europako Erreferentzia Esparru Bateratuko A2 maila lortzen dela bermatzeko.

b) Ikasleekiko jarduerak. Hizkuntza murgiltzeko gela bat abian jartzea, jarraibide hauen araberako (zehaztasun gehiago izateko, begiratu V. eranskinean):

Eskola inklusiboko planteamendu baten barruan garatzea proiektua, ikastetxeko ikasleen aniztasunari globaltasunez eta batera erantzunda, eta itxaropen handiak sortzea hartzaile diren ikasleengan. Jarduera guztietan erabili beharko da ikuspegi inklusiboa, hau da, ikastetxeko ekintza-plan baten barruan egongo da, ikasle eta irakasle guztiei zuzendutakoa izango da, beste eragile batzuek (familiartekoek, talde sozialek,...) parte hartzeko eta kolaboratzeko aukerarekin, eta eskola-arrakasta eta -errendimendua hobetzeko helburu orokorrari lotuta.

Iritsi berri diren ikasleak hizkuntzan murgiltzeko programa bideratzea, ikasle horiek euskararen eta gaztelaniaren ikaskuntza intentsiboan has daitezen, eta, horrela, oinarritzko komunikazio-gaitasuna ematea (A2), elkarrizketarako gaitasunetik hizkera akademikora igarotzen laguntzeko eta, ondorioz, haientzat errazagoa izan dadin curriculum arrunta ikastea.

Hizkuntza murgiltzeko gelak irekia izan behar du, funtzionamendu malgua izan behar du, eta hizkuntzaren ikaskuntza sustatu behar du eskola inklusibo baten esparruan. Horretarako, ikaskuntzaren beharretara egokitu beharko da curriculum, ikasle bakoitzaren ezaugarriak eta hizkuntza-premiak kontuan hartuta.

Metodologia aktiboak eta estrategia inklusiboak erabiltzea; adibidez: benetako komunikazio-tes-tuinguruetan ikastea, curriculumera sartzeko tresna gisa ikastea eskolako hizkuntzak («hizkuntza edukien bidez»), hizkuntza-ikaskuntzari berari buruzko gogoeta, «aldamiatzea», eta abar.

Proiektuaren hartzaile diren ikasleei talde naturalaren barruan banakako arreta emateko neurriak antolatzea (banakako tutoretzak, berdinkideen arteko tutoretzak, kontratu pedagogikoak, ikasle enbaxadoreak, babesak, berbalagunak...).

Gelako jardueretan mailaka parte hartzeko plangintza egitea, eta aztertzea zer eremuk eta/edo arlok (gorputz-hezkuntza, plastika...) emango dien, eduki espezifikoaren bitartez, 2H praktikan erabiltzeko aukera. Ordutegi-banaketa aztertzea, zehazteko noiz landuko den espezifikoari komunikazio-hizkuntza, noiz komeni den gainerako ikasleekiko interakzioa bultzatzea...

Lanerako plan pertsonalizatua egin eta aplikatzea, honako hauek jasotzeko: ikasleek curriculum berenganatzeko zer eduki, neurri eta laguntza behar dituzten, eta zer ebaluazio-irizpideren bitartez ebaluatuko diren. Kontuan hartuko dira ikasleak noiz iritsi diren, adina, maila akademikoa eta ikaskuntzan duten aurrerabidea. Dokumentu horiek Hezkuntza Ikuskaritzaren esku egongo dira 2019ko urria amaitu aurretik.

Kontuan eduki beharko da zer erreferente linguistiko (ama hizkuntza) eta kultural dituzten ikasle horiek, eta eskolako jardueran presentzia eman beharko zaie.

Irakasle guztien arteko koordinazioa bermatzea, bai bertikala bai horizontala; batez ere, proiektuaren xede diren ikasleak dauden taldeekin harremanak izango dituzten irakasleen arteko koordinazioa.

Familia-ingurunearen eta ikastetxearen arteko lotura eta baterako lana indartu beharko dira, komunikatzeko eta lankidetzarako bideak gaituta. Harrera-protokoloan, atal berezi bat utzi behar da murgiltze-geletan parte hartzen duten ikasleen familiekin garatu beharreko ekintzei dagokienez, familiek ikastetxearekiko konfiantza eta segurtasuna izatea erraztuko duten estrategiak eta ekintzak erabiltzeko.

Irakasleen barneko prestakuntza antolatzea (tutoreak, ikasketa-buruak, orientazioa...).

Ematen den irakaskuntza indarrean dagoen araudia betez Lehen Hezkuntzan eta/edo Bigarren Hezkuntzan euskara irakasteko behar den titulazioa daukaten irakasleen eskutik etorriko da.

3.– Diruz lagundu daitezkeen gastuak.

Artikulu honen 2. atalean aipatzen diren ekintzak gauzatzeko sortutako gastuak lagundu daitezke diruz, hau da, irakasleak prestatzeko jarduerekin edo ikasleekiko jarduerekin lotutako gastuak. Jarduera horiek izan litezke, besteak beste, hizlariak kontratatzea, irakasleak kontratatzea, esperimentzia berritzaileak izan dituzten ikastetxeetara bidaiatzea, baliabide bibliografikoak eskuratzea eta metodologia berritzaileak ezartzeko baliabide didaktikoak eskuratzea.

Ordainketa eskuordetuakez du inola ere estali beharko irakasleak kontratatzeko ordainsari-kostua.

8. artikulua.– Eskabideetako akatsak zuzentzea.

Aurkeztutako eskabidean edo dokumentazioan akatsen bat edo zehaztasunik eza dagoela ohartuz gero, eskatzaileari jakinaraziko zaio, eta 10 eguneko epea izango du akatsak zuzentzeko. Halaber, jakinaraziko zaio hori egiten ez badu, eskaeran atzera egin duela ulertuko dela; horretarako, ebazpen bat emango da, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 21. artikuluan jasotakoaren arabera.

9. artikulua.– Dirulaguntzen zenbatekoa.

1.– Ikastetxe bakoitzak jaso ahal izango duen dirulaguntzaren zenbatekoa honako formula honen bidez kalkulatu da:

Lehen Hezkuntza:

Laguntza = Ikasle atzerritarren kopurua*300*(1+ikasle bekadunen %)

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza:

Laguntza = Ikasle atzerritarren kopurua*150*(1+ikasle bekadunen %)

Adibidez: Lehen hezkuntzan, 50 ikasle atzerritar eta ikasleen % 60 bekadun dituen ikastetxe batek $50*300*(1+0,60)=24.000,00$ euro jasoko lituzke. Beste ikastetxe batek atzerriko ikasleen kopuru berdina badu eta bekadun ikasleak % 80,19 badira, honako hau izango da laguntza: $50*300*(1+0,8019) = 27.028,50$ euro.

2.– Aurreko irizpideak aplikatu ondoren, ateratzen den kopurua txikiagoa bada 1. artikuluan bi mailtako baterako aipatzen den aurrekontu-kreditua baino, eta beste mailan handiagoa bada, soberako zenbatekoa aldatuko da maila horretara.

3.– Irizpide horiek aplikatu ondoren ateratako guztizko kopurua, hau da, onartutako programa guztiei esleitu beharko litzaiekeena, handiagoa baldin bada 1. artikuluan adierazitako aurrekontu-kreditua baino, ikastetxe bakoitzerako kalkulatu diren zenbatekoak proportzionalki murriztuko dira, laguntzen guztizkoa aipatu mugara egokitu arte.

4.– Guztira diruz lagundu daitezkeen zenbatekoak ezin du inola ere gainditu ikastetxeak eskatutako zenbatekoa. Aurrekontua txikiagoa bada, aurrekontu horren balioak jarriko du dirulaguntzaren muga.

10. artikulua.– Dirulaguntzen bateragarritasuna.

Agindu honen babesean emandako dirulaguntzak bateragarriak izango dira eskatzaileak helburu bererako lortzen duen beste edozeinekin, administrazio publikoek edo erakunde publiko zein pribatuek emanda ere, baldin eta laguntza metatu guztien zenbatekoak gainditzeko ez badu laguntza jasoko duen jardueraren kostua. Gaindituz gero, gaindikina bateraezina dela deklaratu da, eta neurri berean txikiagotuko da agindu honen bidez emandako laguntzaren zenbatekoa.

11. artikulua.– Ebaluazio-batzordea.

1.– Aurkeztutako eskabideak aztertzeko eta ebaluatzeko, hautaketa-batzorde bat eratuko da; hona hemen kideak:

a) Batzordeburua: Hezkuntza Berriztatzeko Zerbitzuaren arduraduna.

b) Bokalak:

Hezkuntza Berriztatzeko Lurralde-burutzen arduradunak edo haiek izendatutako ordezkariak.

Berritzegune Nagusiko Aniztasuna eta Elkarbizitza arloko bi aholkulari, Hezkuntza Berriztatzeko zuzendariak izendatuak.

Hezkuntza Berriztatzeko Zerbitzuko teknikari bat, idazkari-lanak egingo dituen, Hezkuntza Berriztatzeko Zerbitzuko zuzendariak izendatua.

2.– Eskabideak hautatzea.

Proiektuak aukeratzeko orduan, I. eranskineko eskabide-baloraziorako baremoa hartuko da kontuan. Ukatu egingo dira GAI balorazioa lortzen ez duten proiektuak (gutxieneko puntuazioa: 100 puntutik 60).

Proiektuak egokiro baloratzeko, ebaluazio-batzordeak eskualdeko Berritzeguneari eskatu ahalko dizkio ikastetxeek aurkeztutako proiektuei buruzko txostenak.

12. artikulua.– Prozedurak kudeatu eta ebaztea.

1.– Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzari dagokio agindu honetan xedatzen den prozedura kudeatzeko lanak egitea.

Hezkuntza Berriztatzeko zuzendariari helaraziko dio ebazpen-proposamena; han adieraziko du zein dirulaguntza ematea (erakunde onuradunak eta emango diren zenbatekoak adierazita) eta zein ukatzea proposatzen duen (eskatzaileen zerrenda eta ukatzeko arrazoiak adierazita).

2.– Hezkuntza Berriztatzeko zuzendariak ebazpena emango du, non zehaztuko baitira emandako dirulaguntzak (erakunde onuradunak eta emandako zenbatekoak adierazita) eta ukatutako dirulaguntzak (eskatzaileen zerrenda eta ukatzeko arrazoiak adierazita). Hauek izango dira dirulaguntzak ukatzeko arrazoiak:

A: Ikastetxeak ez betetzea atzerritar ikasleen arloan eskatu zaion ehunekoa.

B: Ikastetxeak ez betetzea ikasle bekadunen arloan eskatu zaion ehunekoa.

C: Proiektuak ez lortzea gai izateko eskatzen den gutxieneko puntuazioa.

3.– Sei hilabeteko epean ebatzi eta jakinaraziko dira laguntzak, deialdia argitaratzen denean aurrera. Ebazpen hau argitara emango da Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoaren iragarki-taulan (<https://www.euskadi.eus/y22-ediktu/eu>), eta argitaratu eta biharamunetik aurrera izango ditu ondorioak. Publikotasunaren ondorioetarako, EHAAn ere argitaratuko da.

4.– Aipatutako epea bukatu ondoren, aurreko apartatuan ezarritako eran ebazpenik jakinarazi ezean, interesdunek interpretatu ahal izango dute beren eskabidea atzera bota dela, urriaren 1eko 39/2015 Legearen 25. artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako, hargatik eragotzi gabe lege horrek Administrazioari berariaz ebazteko ezartzen dion betebeharra.

5.– Deialdiko dirulaguntzak esleitzeko prozedurari amaiera ematen dion ebazpenaren aurka, gora jotzeko errekurtsoa jarri ahal izango diote interesdunek Hezkuntzako sailburuordeari, hilabeteke epean, ebazpena jakinarazi eta biharamunetik aurrera.

13. artikulua.– Erakunde onuradunen betebeharrak.

1.– Agindu honetako dirulaguntzen erakunde onuradunek honako betebeharrak dituzte, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 14. artikuluan jasotako betebeharrak gain (finantzaketa publikoa dela jakinarazteko publizitate egokia emateko neurriak ere hartu beharko dituzte, Dirulaguntzei buruzko Legearen 18. artikuluan 3. eta 4. ataletan jasotakoarekin bat etorriz):

a) Emandako dirulaguntza onartzea. Hortaz, hamabost eguneko epean –ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita– erakunde onuradunek berariaz eta idatziz dirulaguntzari uko egiten ez badiote, onartutzat joko dira.

b) Dirulaguntza eman den xederako erabiltzea.

c) Hezkuntzako Ikuskatzaitzari ikastetxean garatzen diren programei buruz eskatu beste informazio ematea.

d) Kontrol Ekonomikoko Bulegoari eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiari, beren eginkizunetan dihardutela, eskatzen duten informazioa ematea deialdi honen kargura jasotako dirulaguntzei buruz.

e) Hezkuntza Berriztatzeke Zuzendaritzari jakinaraztea edozein administrazio edo erakunde publiko nahiz pribatutatik xede bererako lortutako dirulaguntzak edo laguntzak, diru-sarrerak edo baliabideak, bai eta dirulaguntza hau eman zenean zeuden baldintzak zerbaitetan aldatu izana ere.

f) 2020ko urtarrilaren 25a baino lehenago aurkeztea, <https://www.euskadi.net/nirekudeaketak> helbidean, gehienez ere bost orrialde izango dituen memoria bat, programa 2020ko urtarrilaren 18an nola dagoen adieraziko duena, 3.1 artikuluan e), f), g) eta h) apartatuak bereziki aipatuta.

2.– Erakunde interesduna erregistratuta ez badago edo erregistratutako datuak aldatu nahi baditu, bide elektronikoz egin ahal izango du erakunde interesdunak izapide hori, helbide honetan: <http://www.euskadi.eus/eusko-jaurjaritza/-/hirugarrenaren-datu-aldaketa/>

14. artikulua.– Dirulaguntza ordaintzea eta justifikatzea.

1.– Zatika ordainduko zaizkie dirulaguntzak ikastetxe onuradunei, hiru ordainketatan:

a) Lehenengoa, 2019ko ekitaldiari dagokiona, ikastetxe onuradun bakoitzari dagokion dirulaguntzaren % 60, deialdia ebatzi ostean, agindu honen 13.1.a) artikuluan aipatzen den epea amaituta gero, baldin eta tartean berariaz uko egiten ez bazaio.

b) Bigarrena, 2020ko ekitaldiari dagokiona, ikastetxe onuradun bakoitzari dagokion dirulaguntzaren % 20, 2020ko urtarrilean, 13.1.f) artikuluan aurreikusitako memoria aurkeztu eta gero.

c) Ondorengo paragrafoan aipatzen den dokumentazioa dagokion epean jaso ondoren, dirulaguntzaren likidazioa egingo da. Ateratzen den guztizko emaitzari –inoiz ez da izango ebazpenean onartutakoa edota egindako guztizko gastua baino handiagoa– kendu egingo zaio lehen bi ordainketen zenbatekoa, eta, behar izanez gero, aldea ordaindu edo erreklamatu da.

2.– 2020ko irailaren 14a baino lehen, diruz lagundutako ikastetxeek agiri hauek aurkeztu beharko dituzte <https://www.euskadi.eus/nirekudeaketak> helbidean:

a) Gauzatutako berariazko laguntza-programaren deskripzio-memoria, inprimaki normalizatuaren arabera egindakoa: Justifikazio-memoria (III. eranskina), non zehazten baitira, besteak beste, zuzendu den maila edo mailak, lortutako emaitzak, programaren balorazio orokorra eta programaren kostu ekonomiko banakatua (hala badagokio, IV. eranskineko irakasle-kostuak jasoko dituen).

b) Hizkuntzan murgiltzeko programan izandako langile-gastuen ziurtagiria, inprimaki normalizatuaren arabera egindakoa: irakasle-kostuen ziurtagiria (IV. eranskina), non ageriko baitira eraginpeko irakasleen kostu banakatuak. Irakaskuntza-jarduera hori gauzatuz gero baino ez da aurkeztu behar inprimaki hori.

c) Langile horien Gizarte Segurantzarekiko ordainketak egiaztatzeko agiriak –TCak edo pareko beste agiriren bat–, zer egoera laboraletan dauden egiaztatzearen. Irakaskuntza-jarduera hori gauzatuz gero baino ez dira aurkeztu behar agiri horiek.

d) Izandako beste gastu batzuen frogagiriak, baldin eta gastu horiek murgiltze-programaren parte badira. Gastu horiek eginez gero baino ez dira aurkeztu behar agiri horiek.

e) Eskola Kontseiluaren onespeneren ziurtagiria, egindako programa onesteko dena.

Egoitza elektronikoa honetan eskura daitezke artikulua honetan aipatzen diren eredu normalizatuak: <https://www.euskadi.eus/dirulaguntza/2019/programa-especifico-diversidad/y22-izapide/eu/>

3.– Jasotzeko den diru-zenbatekoa ezingo da inola ere ikastetxeak egiazki egindako gastua baino handiagoa izan. Artikulu honen 2. apartatuko deskripzio-memorian justifikatutako zenbatekoa txikiagoa bada hasieran onartu eta ordaindutako zenbatekoa baino, justifikatutako zenbatekoak ezarriko du dirulaguntzaren muga. Horrek ebazpena aldatzea ekarriko du, ebazpenaren zenbatekoa justifikatutako zenbatekora egokitu arte aldatu ere, eta, hala badagokio, hurrengo artikuluan jasotzen den itzultze-prozedura eragingo du.

15. artikulua.– Ez-betetzearen araubidea.

1.– Dirulaguntzen onuradunak Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontuen kargurako laguntza publikoak erabiltzeagatik ezartzen den zehapen-araubidearen pean egongo dira, eta, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 37. artikuluan ezarritakoa aplikatuz, honako kasu hauetan itzuli beharko dute eman eta jasotako zenbatekoa, osorik edo partez, baita aplikatu daitezkeen legeko interesak ere (berandutze-interesa barne dela):

– Eskatzen diren baldintzak faltsutuz edo laguntza lortzea eragotziko zuketena baldintzak ezkutatuz lortu badute dirulaguntza.

– Dirulaguntza emateko oinarrizkoak diren xedea, jarduera edo proiektua ez betetzea (osorik edo zati batean) edo eskatzen den portaera ez izatea.

– Finantza-kontrola eta -egiaztapena egiteko jarduerari aurka egitea, eragozpenak edo aitzakiak jartzea, edo uko egitea.

– Dirulaguntza erabiltzen ez bada hura eskatu eta eman zenean adierazita zegoen xede espezifikorako.

– Dirulaguntza eragin zuen jarduera burutzen ez bada.

– Dirulaguntza zertarako eman zen, helburu zehatz horrexetarako erabili dela justifikatzen ez bada.

– Oro har, betetzen ez badira azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuko VI. tituluan ezarritako obligazioak, agindu honetan ezarritakoak edo dirulaguntza emateko ebazpenean ezarritakoak.

2.– Dirua itzultzeko, abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuan horretarako ezarritako prozedura beteko da. Dekretu horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorraren kontura ematen diren dirulaguntzen bermeei eta horiek itzultzeari buruzko erregimen orokorra arautzen da eta horien kudeaketan parte hartzen duten erakunde laguntzaileek bete beharreko baldintzak, erregimena eta eginbeharrak ezartzen dira. Nolanahi ere, hori ez da eragozpena izango bideratu beharreko beste ekintza guztiak bideratzeko. Bestalde, aipatutako zenbateko horiek diru-sarrerara publikotzat joko dira, legezko ondorio guztietarako.

16. artikulua.– Dirulaguntzaren baldintzak aldatzea.

Dirulaguntza emateko kontuan hartu diren baldintzak aldatzen direnean, dirulaguntza eman duen ebazpena ere aldatu ahal izango da, baldin eta dirulaguntzaren helburua betetzat jotzen bada. Horretarako, Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzak likidazio-ebazpen bat emango du, eta, han, emandako dirulaguntzen zenbatekoak berregokituko dira.

17. artikulua.– Datu pertsonalak.

Agindu honetako prozeduretan aurkeztutako eskabideetan eta dokumentuetan jasotako datu pertsonalen tratamendua Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzak egingo du, datuen tratamenduari «arduradun» gisa. Datu pertsonal horien tratamenduaren xede izango da deialdi hau kudeatu eta ebazpena ematea. Horren interes publikoan eta bertan parte hartzeko eskaeran oinarritzen da xede hori.

Interesdunek beren datuei buruzko irispide-eskubidea, zuzentzekoa, ezereztekoa eta transferitzekoa erabil ditzakete, bai eta datuen tratamendua mugatzekoa edo hari aurka egiteko eskubidea ere; horretarako, idazki bat bidali behar dute helbide honetara: Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritza, Donostia kalea 1, 01010, Vitoria-Gasteiz.

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA.

Agindu honen aurka, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez dakioke Hezkuntzako sailburuari, hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, bi hileko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera.

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA

Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko irailaren 10a.

Hezkuntzako sailburua,
CRISTINA URIARTE TOLEDO.

I. ERANSKINA

ESKABIDEAK BALORATZEKO BAREMOA – HIZKUNTZAN MURGILTZEKO PROGRAMA

1.– Proiektua testuinguruan jartzea eta justifikatzea: 40 puntu, gehienez.

1.1.– Ikastetxeak duen ibilbidea arlo hauetako jarduerak, programak, proiektuak, prestakuntza eta abar bultzatzen: ikasle etorkinak hartzeko plana, iritsi berri diren ikasleen hizkuntza-indartzea, kulturarteko kompetentzia, aniztasun handiko egoerei erantzuteko irakaskuntza-estrategiak, eta abar. (5 puntu, gehienez).

1.2.- Lan-egitasmoak diagnostikoan atzemandako beharrekin duen lotura (5 puntu, gehienez ere).

1.3.- Lortu nahi diren helburuen argitasuna eta zehaztasuna (5 puntu, gehienez ere).

1.4.- Zehaztea prestakuntza-jarduerak irakasleekin eta esku-hartze jarduerak ikasleekin murgiltze-gelan (7.2 artikuluan jasotako jarraibideekiko egokitze-maila) (20 puntu, gehienez ere).

1.5.- Genero-ikuspegia txertatzea (5 puntu, gehienez ere).

2.– Proiektuaren kudeaketa, aplikagarritasuna eta bideragarritasuna: 20 puntu, gehienez ere.

2.1.- Jardueren plangintza eta tenporalizazioa (5 puntu, gehienez ere).

2.2.- Koordinazio-egiturak ezartzea eta ardurak banatzea (5 puntu, gehienez ere).

2.3.- Erabili nahi diren materialak eta baliabideak antolatu eta zehaztea (5 puntu, gehienez ere).

2.4.- Material didaktikoa, zientifikoa edo teknologikoa sortzea (5 puntu, gehienez ere).

3.– Emaitzak ebaluatzeko plana: 20 puntu, gehienez ere.

3.1.- Proiektuan markatutako helburuen lorpena adierazten duten ebaluazio-irizpideak zehaztea (10 puntu, gehienez ere).

3.2.- Ebaluazio-tresnak eta ebaluazio-aldiak ezartzea (10 puntu, gehienez ere).

4.– Aurrekontuaren justifikazioa: 10 puntu, gehienez ere.

4.1.- Eskatutako aurrekontua koherentea izatea lan-egitasmoarekin eta ikastetxearen baliabideekin (5 puntu, gehienez ere).

4.2.- Eskatutako zuzkiduraren azalpen-banakapena (5 puntu, gehienez ere).

5.– Proiektuaren eragina: 10 puntu, gehienez ere.

5.1.- Proiektuan parte hartuko duten irakasleen eta taldeen kopurua (5 puntu, gehienez ere).

5.2.- Proiektua zabaltzeko eta hezkuntza-komunitatearen eta familien parte-hartze aktiboa sustatzeko neurriak (5 puntu, gehienez ere).

Proiektua gaitzat jotzeko, 60 puntu behar dira.

2019ko irailaren 24a, asteartea

Inprimaki hau ezin da eskuz bete. Eskabidea egiteko, 3. artikuluan esandakoari jarraitu behar zaio.

II. ERANSKINA

ESKABIDEA

HIZKUNTZAN MURGILTZEKO PROGRAMAK HOBETZEKO APARTEKO DIRULAGUNTZAK

Datu pertsonalak

Titularra

Identifikazio-dokumentua		Zenbakia	
Izena		Abizenak	
Sexua	<input type="radio"/> Gizona <input type="radio"/> Emakumea		

Ordezkarria

Identifikazio-dokumentua		Zenbakia	
Izena		Abizenak	
Sexua	<input type="radio"/> Gizona <input type="radio"/> Emakumea		

Erakunde eskatzailearen datu fiskalak dituen probintzia / lurraldea

Erakunde eskatzailearen datu fiskalak dituen probintzia / lurraldea	
---	--

Jakinarazpen eta komunikazioetarako kanala

Elektronikoa: «Nire kudeaketak» ataleko jakinarazpenen eta komunikazioen ontzira bidaliko dira. Bertara iristeko, identifikazio-modu elektronikoa bat behar da.

10 egun naturaleko epean jakinarazpen elektronikora sartzen ez bazara, ulertuko da baztertu egin duzula; beraz, izapidea egindakotzat joko da, eta Administrazioak prozeduran aurrera segituko du.

Abisuak jasotzeko datuak

Posta elektronikoa edo SMS bidezko aurretiazko abisuen sistema erabili nahi duzu?	
<input type="radio"/> Ez: ez duzu abisurik jasoko jakinarazpen edo komunikazio bat bidaltzen zaizunean (posta elektronikoz edo posta arruntez)	
<input type="radio"/> Bai: abisu bat jasoko duzu jakinarazpen edo komunikazio bat bidaltzen zaizunean (posta elektronikoz edo posta arruntez)	
Abisuetarako bidea	Posta elektronikoa / Telefono-zenbakia

Jakinarazpen, komunikazio eta abisuetarako hizkuntza

<input type="radio"/> Euskara <input type="radio"/> Gaztelania
--

ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENAK

Hau adierazten dut erakunde eskatzaileari dagokionez:

Bateragarritasun-adierazpenak:

- Ez da xede eta helburu bererako laguntza edo dirulaguntzarik jasotzen ari administrazio publiko eta erakunde pribatuetatik.
- Xede eta helburu bererako laguntza edo dirulaguntzak jasotzen ari da administrazio publiko eta erakunde pribatuetatik (dagokion agirian zehaztu behar dira puntu honetako datuak).
- Administrazio publikoren bati edo erakunde pribaturen bati laguntza edo dirulaguntzaren bat eskatu dio, eta ebazpena jasotzeko zain dago (dagokion agirian zehaztu behar dira puntu honetako datuak).

2019ko irailaren 24a, asteartea

- Sartuta dago Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak edo haren erakunde autonomoek emandako izaera bereko laguntza edo dirulaguntzak direla-eta hasitako edozein itzultze- edo zigor-prozeduratan.
- Ez dago sartuta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak edo haren erakunde autonomoek emandako izaera bereko laguntza edo dirulaguntzak direla-eta hasitako edozein itzultze- edo zigor-prozeduratan.

- Ez du zigorrik jaso, ez penalik ez administratiborik, laguntza edo dirulaguntza publikoak jasotzea galarazten dionik.
- Ez du dirulaguntza edo laguntza publikoak jasotzeko ezgaitzen duen legezko debekurik, espresuki aipatuta sexu-diskriminazioagatik gertatutakoak.
- Ordainduta ditu dirulaguntzak itzultzeko betebeharrak.
- Ez du egin borondatezko konkurtsoa deklaratzeko eskaririk, ez da kaudimengabe deklaratu izan prozeduraren batean, ez dago hartzekodunen konkurtsoan deklaratu (egoera horretan egotea onartuko da, baldin eta konkurtsoan itun batek eragingarritasuna hartu badu), ez dago epaile baten esku-hartzearen mende edo Konkurtsoari buruzko uztailaren 9ko 22/2003 Legearen arabera gaitasungabetuta, konkurtsoa kalifikatzeko epaian finkatutako gaitasungabetze-aldia amaitu gabe dagoela.
- Ez du bide eman administrazioarekin egindako kontraturen bat irmoki suntsiaraz dadin, kausaren batean errudun deklaratu egotearen.
- Pertsona fisikoa, merkataritza-sozietateetako administratzaileak edo beste pertsona juridiko batzuen legezko ordezkariak dutenak ez daude honako lege hauetan jasotako kasuren batean: martxoaren 30eko 3/2015 Legea, Estatuko Administrazio Orokorreko goi-kargudunen jarduna arautzen duena, eta abenduaren 26ko 53/1984 Legea, Administrazio publikoen zerbitzura dauden langileen bateraezintasunena; edo, ez dira Hauteskunde Erregimen Orokorraren ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoan araututako hautapenezko karguak, lege horretan edo gai horiek arautzen dituen Euskal Autonomia Erkidegoko arauak ezarritako baldintzetan.
- Ez dauka egoitza fiskala erregelamenduz zerga-paradisua gisa sailkatutako lurralde edo herrialderen batean.
- Indarrean dauden arauetan ezarritako betekizunak betetzen ditu.
- Eskabide honetan eta honi gehitutako dokumentuetan adierazitako datu guztiak egiazkoak dira.

Aurre-eskabidearen zenbakia:

--

Organo izapidegileak ofizioz egiaztatzeak

Araudi aplikagarriarekin bat etorritz, prozedura honen instrukzio-organoak datu hauek egiaztatuko ditu administrazio eskudunean:

- Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorrarekiko (GSDO) betebeharrak egunean izatearen datuak.
- Zerga-betebeharrak egunean izatearen datuak (EAeko foru-aldundiak edo Estatuko Zerga Agentzia).

- EZ DUT ONARTZEN prozedura honen organo izapidegileak ofizioz egiaztapenak egitea (39/2015 Legearen 28. artikulua).

Onartzen ez baduzu, prozeduran eskatutako dokumentu guztiak aurkeztu beharko dituzu.

Agindu honetako prozeduretan aurkeztutako eskabideetan eta dokumentuetan jasotako datu pertsonalen tratamendua Hezkuntza Berritzatzeko Zuzendaritzak egingo du, datuen tratamenduaren «arduradun» gisa. Datu pertsonal horien tratamenduaren xede izango da deialdi hau kudeatu eta ebazpena ematea. Horren interes publikoan eta bertan parte hartzeko eskaeran oinarritzen da xede hori.

Interesdunek beren datuei buruzko irispide-eskubidea, zuzentzekoa, ezereztekoa eta transferitzekoa erabil ditzakete, bai eta datuen tratamendua mugatzekoa edo hari aurka egiteko eskubidea ere; horretarako, idazki bat bidali behar dute helbide honetara: Hezkuntza Berritzatzeko Zuzendaritza, Donostia kalea 1, 01010, Vitoria-Gasteiz.

2019ko irailaren 24a, asteartea

III. ERANSKINA**JUSTIFIKAZIO-MEMORIA – HIZKUNTZAN MURGILTZEKO PROGRAMA**Ikastetxearen kodea:

--	--	--	--	--	--

Jauna/Andrea: _____ NAN: _____

Ikastetxe honetako titularra/zuzendaria den aldetik: _____

adierazten du 2019-2020 ikasturtean hizkuntzan murgiltzeko programa hau garatu duela:

HIZKUNTZAN MURGILTZEKO PROGRAMAREN deskribapena:

Zer mailari zuzenduta egin den:

Helburuak: lortutako helburuak zerrendatu eta deskribatuko dira.

Ekintzak: gauzatutako jarduerak zerrendatu eta deskribatuko dira.

Ikasleak: gauzatutako ekintza bakoitzean parte hartu duten ikasleen kopurua adieraziko da.

Irakasleak: gauzatutako ekintza bakoitzean parte hartu duten irakasleen kopurua adieraziko da.

Balorazioa:

HIZKUNTZAN MURGILTZEKO PROGRAMAREN kostu ekonomiko banakatua. Hala badagokio, IV. eranskineko irakasle-kostuak ere jasoko ditu.**Programa gauzatu bitartean honako gorabehera hauek gertatu dira:**

2019ko irailaren 24a, asteartea

IV. ERANSKINA

IRAKASLEEN KOSTUAREN ZIURTAGIRIA – HIZKUNTZAN MURGILTZEKO PROGRAMA

Berariazko laguntza-programan, honako irakasle hauek kontratatu dira, honako kostu hauekin:

Programako irakasleak	2019. urtea				2020. urtea								Kostuak, guztira	
	Izen-abizenak	Iraila	Urria	Azaroa	Abendua	Urtarrila	Otsaila	Martxo	Apirila	Maiatza	Ekaina	Uztaila		Abuztua
Zenbateko likidoa														
Kenkariak														
Sortzapenak														
Enpresa-kuota														
Izandako kostua, guztira (sortzapenak guztira + enpresa kuota)														

V. ERANSKINA

HIZKUNTZAN MURGILTZEKO PROGRAMA DISEINATZEKO GAKO BATZUK

METODOLOGIA

Oinarrizko gaitasunekin lotutako prozedurak irakatsi eta ikasteko prozesuaren azken helburua, hain zuzen ere, ikasleek hizkuntza-prozeduren zentzua eta erabilera estrategikoa barneratzea da, eta ondoren bere kabuz eraginkortasunez aplikatzea.

Prozedurak modu estrategikoan erabiltzen ikasteko, Heziberri 2020 hezkuntza eredu pedagogikoaren esparruak orientabide metodologiko hauei jarraitzea gomendatzen du:

- Prozedurak ikasi ahal izateko, integratu egiten dira diziplina-arloetako irakatsi eta ikasteko prozesu formaletan eta eguneroko bizitzako informaletan.
 - Modu esplizituan eta sistematikoan irakatsiz ikasten dira prozedurak.
 - Prozedurak modu ohikoan eta jarraituan erabili behar dira irakatsi eta ikasteko prozesuetan.
- Prozedurak modu estrategikoan aplikatzen ikasteko, hau da, egoera eta eduki bakoitzean egoki diren prozedurak hautatzen ikasteko, aplikazioarekin batera joan behar dute metakognizioak eta autorregulazioak ere.

Irakaslearen rola funtsezkoa da ikasleek prozedurak aplikatzen ikas dezaten, batik bat ikasteko zailtasunak daudenean. Prozedurak irakasteko hainbat era daude:

a) Irakaslearen kontzientzia-mailaren (metakognizioa) arabera:

- Praktika itsua: irakasleak prozeduraren urratsak eta teknikak azaltzen dizkio ikasleari, arrazoiak justifikatu gabe. Irakasteko era hori egokia izan daiteke prozedurak modu mekanikoan erabiltzen ikasteko, baina ez modu autonomoan eta estrategikoan erabiltzeko.
- Praktika arrazoitua: irakasleak prozeduraren urratsak eta teknikak azaltzen dizkio ikasleari, arrazoiak justifikatuz. Era hau egokiagoa da prozedurak modu autonomo eta estrategikoagoan erabiltzen ikasteko.
- Praktika metakognitiboa: irakasleek, arrazoiak justifikatuz prozeduraren urratsak eta teknikak azaltzeaz gain, ikasleei laguntzen diete prozeduren erabileraren gaineko kontzientzia har dezaten eta modu autonomoan erregula ditzaten. Era hau da egokiena, zalantzarik gabe, ikasleek prozedurak autonomiaz aplikatzen ikas dezaten.

b) Irakaslearen laguntza-motaren eta ikasleen autonomia-mailaren arabera:

- Instrukzio esplizitua: irakasleak prozeduraren urratsak eta teknikak azaltzen ditu, eta ikasleak aginduak bete baino ez du egiten.
- Irakaskuntza gidatua: prozeduraren urratsak eta teknikak azaltzeaz gain, irakasleak ikaslea gidatzen du (galderak, adierazleak eta abar erabiliz), hura aplika dezan.
- Ikaskuntza dialogikoa: ikasleak bere gain hartzen du prozedura aplikatzeko ekimena eta protagonismoa, eta behar eta eskatzen duen heinean sortzen da elkarriketa, erabil daitezkeen urratsen eta tekniken azalpena eta, beharrik balego, irakasleak hura aplikatzen lagundu dezake.
- Ikaskuntza kooperatiboa: instrukzio zuzenean nahiz irakaskuntza gidatuan eta dialogikoan aplika daiteke. Ez ditu prozedurak modu indibidualean aplikatzen, baizik eta kooperatiboan; hau da, zereginak taldekide guztien artean banatuz eta zereginak egin ahal izateko elkarlanean, beharrezkoa den heinean elkarri lagunduz.

Garapen emozionalarekin eta eskolako eta gizarterako ohitura egokiak eskuratzearekin lotutako lanari dagokionez, honako hau hartu behar da kontuan:

- Eskola-ingurunera egokitzeko prozesua sustatuko duten zeharkako oinarrizko gaitasunak garatu behar dira. Zentroari buruzko oinarrizko ezagutza erraztu behar da (espazioak, denboraren banaketa, ohiturak, eta abar), eta ingurune berrian konfiantza-maila jakin bat ahalbidetu, ikaslea eroso eta seguru sentitu dadin eta, horrenbestez, konfiantzaz eta jarrera proaktiboz aurre egin ahal izan diezaien gizarteratzeko eta irakatsi eta ikasteko prozesuei.

- Ikasteko eta motibatzekeo estrategiak. Hizkuntza berriaren ikaskuntza sustatzeko behar adina estrategiaz hornitzea da helburua.
- Bizikidetzarako eta partaidetzarako estrategiak. Pertsonen arteko harremanak eta kideekiko interakzioa bultzatu behar dira, betiere aniztasuna eta bizikidetzaren positiborako arauak errespetatuta.

Ikuspegi horretan, **IK**Tek laguntza handia eman dezakete ikasleek prozedurazko edukiak ikasteko eta irakasleek hobeto irakasteko bitartekaritza-tresna gisa. IKTak tresna bereziki baliotsua dira aniztasuna kontuan hartuko duen hezkuntza pertsonalizatua eman ahal izateko. Edukia modu ordenatuan eta berreskuragarrian gorde eta aurkezteko ere laguntza handia eman dezakete. Gainera, lagungarriak izan daitezke, era berean, zenbait prozesurekin lotutako ohitura eta jarrerak garatzeko: besteak beste, prozesu kognitiboekin (arreta, jakin-mina, interesa, motibazioa...) eta batez ere, kontzientzia hartzeko eta autorregulatzeko prozesu metakognitiboekin; komunikazio-prozesuekin (entzute aktiboa, errespetua...); lankidetzarako ohitura eta jarrerak, sareko elkarlanaren bitarteko lankidetzaren, eta abar.

Ahozko hizkuntzaren lanean, teknologiak hainbat aukera ematen ditu ikasleentzako erabilera grabatu eta erreproduzitzeko, eta era askotako erregistro, dialekto, estilo eta abarreko laginak entzuteko. Horrela, errazago ekoitzi eta antola daitezke bizkor grabatu eta berrius daitezkeen ahozko ariketak.

Idazteko prozesuari dagokionez, testuen tratamendua, zuzentzaile ortografikoak, kontzeptu-mapak, eta beste hainbat baliabide daude, idatzizko ekoizpenak planifikatzeko, testuratzeko eta orrazteko. Gainera, txat, foro, blog eta antzekoek esker idazteko aukera gehiago daude.

Ikasleek esanahiak egoera jakin batzuetan eraginkortasunez komunikatzeko behar dituzten hizkuntza-trebetasunak eta estrategiak garatzeko, garrantzitsua da ikaskuntza prozesua printzipio hauetan oinarrituta egotea:

- Ikasleentzat esangura duten jarduerak proposatuko dira.
- Benetako eta askotariko testuak erabiliko dira. Ahozko nahiz idatzizko ulermena hobetzeko aukera eman behar dute, baita ahozko eta idatzizko ekoizpena lantzeko ere.
- Interakzioa bultzatuko da, komunikazio-gaitasuna hobetzeko modua den aldetik. Barnean hartuko dira ikasleek binaka eta taldeka negoziatzea eta elkarlanean aritzea eskatzen duten jarduerak; hitz-etorria handitzeko jarduerak, ikasleentzako konfiantza areagotzeko dutenak; simulazio-jolasak (*role playing*), hizkuntzaren funtzioak praktikatu eta garatzeko; eta gramatikaren erabilera egokia eta ahoskera ona lortzeko jarduerak.
- Irakaslea baliabideen hornitzaile eta ikaskuntzen erraztaile bihurtzen da. Beste askoren artean, *input* eta informazio iturria da. Arreta berezia jarri behar da ikaslearen ikasketa-prozesuari eta arian-arian sortzen diren beharrei. Batzuetan, irakaslearen eginkizuna jarduera aurkeztera mugatuko da, parte hartu gabe, eta ikasleek eragin behar dion elkarri. Ikasleak izan behar du protagonista.
- Hitz-etorria lehenetsiko da, gramatikaren zuzentasuna baino gehiago, baldin eta komunikazioa eteten ez bada. Adibidez, akatsari eta zuzentasunak ezari bestela begiratu behar zaie; izan ere, ikaslearen ikasketa-prozesuari eta haren tarteko hizkuntzari buruzko arrastoak ematen dizkigute. Beraz, tolerantzia handiagoa agertu behar da akatsekin, baina ez zaie horregatik finkatzeko aukerarik eman behar.
- Ikasleak ikaskuntzari dagokionez dituen beharrak eta itxaropenak prozesuaren parte bihurtzen dira. Horregatik, garrantzi handia hartzen du testuinguruak, baita hizkuntzarekin lotutako dimentsio soziokulturalak ere. Interesgarria da jakitea ea Euslen lantzen ari den eduki zehatza jadanik ezagutzen duen, aurrez ikasi duen... Haren «**garapen hurbileko eremuan**» oinarritzeko modu bat da.

Modu osagarrian, Coelhok zenbait estrategia metodologiko iradoki ditu aldarnatzea finkatzeko:

- Ikasleen ezagutza eta interesak aprobetxatzea (ikasleen hizkuntzak erabiltzea; idatzizko zeregina prestatzeko ideia-jasa egitea...).
- «Input ulergarria» ematea (argi eta garbi hitz eginez, hitz bakoitza kontu handiz ahoskatuz, giltza-hitzak errepikatuz eta aldi berean arbelean idatziz; keinuak eginez eta gorputzaren mugimenduak erabiliz ulermena handitzeko eta azpimarratzeko; eguneroko hitzak erabiliz hitz akademikoagoak txertatzeko; baliabide bisualak eta antolatzaile grafikoak erabiliz...).
- Modelo eta praktika gidatuak ematea (ahoskatzeko, eta ikasleei errepikatzen animatzea; testuinguruan erabilgarriak diren esaldiak eta perpaus-eredu espezifikokoak; idazteko zenbait molde; idazte-prozesukoak, ozen pentsatuta...).
- Laguntzeko atzeraelikadura ematea (ahozko hizkeran egin diren akatsei birformulatuz erantzutea, zuzenean zuzendu gabe...).
- Talde-lana antolatzea.

PROGRAMAZIOA DISEINATZEKO KOMUNIKAZIO-IKUSPEGI INTEGRATZAILEA

Murgiltze-gelako programazioa diseinatzeke eta banakako plana garatzeko, **komunikazio-ikuspegitik** abiatzen da erreferentziako esparrua. Hizkuntza eguneroko bizitzarako interakzio-tresna gisa ulertzen da, eta ez objektu gisa.

Hizkuntza berriak ikastetxe barruan nahiz kanpoan gizarteratzeko prozesuan laguntzen du; beraz, erabilera-eremu bat baino gehiago ezarri beharko da. Hori horrela, 2H irakatsi eta ikasteko prozesuan bi gaitasun mota bereizi behar ditugu:

- Komunikatzeko hizkuntza-gaitasuna: pertsonen arteko komunikaziorako oinarrizko trebetasunak; hau da, entzutea eta hitz egitea «azaleko» trebetasunak. Orokorrean ikasle ugari berragatzen dituzte.
- Hizkuntza-gaitasun akademikoa, hezkuntza-testuinguruaren berriazkoa: ikasgai edo arloetan eskatzen diren betekizun akademikoak aurre egiteko gaitasunaren oinarria da. Aurrerantzean, hizkuntzen irakaskuntza ezin da espezialista batzuek irakatsitako curriculum bereizitatz hartu; aitzitik, ikasten ari den hizkuntza edukiak ikasteko tresna berritzen da, eta haien bitartez ikasten dute ikasleek.

Hizkuntzan murgiltzeari dagokionez, kontuan hartu behar da hizkuntza akademikoan gaitasuna lortzeko prozesua askoz ere luzeagoa dela elkarriketarako gaitasuna lortzeko behar dena baino; hortaz, atzerritar jatorriko ikasleek denbora luzeagoa beharko dute hizkuntza akademikoa menderatzeko, eskolako hizkuntza ulertzeko eta hitz egiteko baino.

Ikasleek, komunikazio-hizkuntzan edo -hizkuntzetan komunikatzeko oinarrizko gaitasuna eta hizkuntza-gaitasun akademikoa lortzeaz gain, curriculumeko edukiak ere ikasi behar dituzte. Hezkuntza-ikuspegiak hizkuntzaren ikasketa soilik hartzen badu kontuan, eta ez badio jaramonik egiten ikasgaia ikasteari, ez da izango ikasle horien beharrak asetzeko aski, hizkuntza baita ikasteko bitarteko garrantzitsuena.

Beraz, ikuspegi integratzailea behar da, hizkuntzaren ikaskuntza eta eduki espezifikoen ikaskuntza lotuko dituen; hau da, hizkuntza ikastea ikasteko bitarteko gisa, eta aintzat hartzea testuinguruak komunikazioan betetzen duen eginkizuna. Horregatik, «Hizkuntzaren eta edukien ikaskuntza integratua» (CLIL) izango litzateke metodologia egokiena. Edukien eta hizkuntzen irakaskuntza integratuari esker (CLIL), ikasleek zuzenean erabil ditzakete beren hizkuntza-gaitasun berriak hizkuntzaz bestelako ikasgaiak ikasteko, eta, aldi berean, hizkuntza-gaitasun handiagoa lortzen dute arlo eta eduki horien bitartez.

Eskolako curriculum osatzen duten edukiak dira erreferentziakoak eta, horiek eskuratu ahala, arian-arian ikasleen kontzeptu-esparrua eta gaitasunak zabaltzen lagunduko dute. Kasuan-kasuan kognitiboki estimulatzaileak diren eta ikasleen hizkuntza-helburuetara eta -gaitasunera egokitzen diren edukiak aukeratzea da kontua. Hurbilketa horretarako, koordinazio eta lankidetzak handiz jardun behar dute ohiko curriculumaz arduratzen diren irakasleek eta murgiltze-gelan hizkuntza indartzeaz arduratzen direnek.

GELAREN FUNTZIONAMENDUA ETA ANTOLAMENDUA

Antolamendu-alderdiei dagokienez, irakasle taldeak erabakiko du zein ikasle joango diren ordu tarte bakoitzean programara, une horretan haren ohiko gelan lantzen ari diren ikasgaiaren eta arloaren arabera. Oinarrizko komunikazio-hizkuntza talde txikitan eta sistematikoki lantzea da helburua.

Gelan laguntzeko ordutegiak malgutasunez planifikatuko dira, ikasle bakoitzaren lan pertsonalizatuaren arabera, eta ikastetxe bakoitzean aniztasuna kontuan hartzeko antolamendu-ereduaren barruan.

Egunean bizpahiru saio egitea izango da oinarrizko ordutegia, eta ondoren beste aukera osagarri batzuk gaineratu ahal izango dira; adibidez, Bidelaguna programa eta indartzeko beste programa batzuk.

Baliabideen kudeaketari begira, kontuan hartu behar da ikastetxe batean hainbat egoera gerta daitezkeela:

1. taldea: Lehen Hezkuntzako 1., 2. eta 3. mailako ikasle iritsi berriak. Oinarrian, ahozko hizkuntza ikastea eta praktikatzea, idatzizkoan bermatuta ikasitakoa finkatzeko eta irakurri eta idazteko prozesuan haien bilakaera sendotzeko. Antolamendua aurreko ikasturteetan bezala mantenduko da, eta erreferentziako gelan aldi berean behin arreta espezifikoa emango zaie.

2. taldea: ikasturte honetan iritsi diren Lehen Hezkuntzako 4., 5. eta 6. mailako eta DBHko 1. eta 2. mailako ikasleak. Funtsean, oinarrizko komunikazio-hizkuntza landuko litzateke (A1).

3. taldea: iragan ikasturtean iritsi ziren Lehen Hezkuntzako 4., 5. eta 6. mailako eta DBHko 1. eta 2. mailako ikasleak. Komunikazio-hizkuntzaz gain, pixkanaka gelako eta ikasgai eta arloetako hizkuntzarekin lotutako hizkuntza- eta komunikazio-trebetasunak ere eskuratu behar dituzte, irakurmena hobetu behar dute, eta abar, oinarrizko erabiltzailearen mailan (A2).

2. taldearen eta 3. taldearen ordutegi-antolamenduaren adibidea:

	Al.	Ar.	Az.	Og.	Or.
09:00 -10:00	2. TALDEA	3. TALDEA	2. TALDEA	3. TALDEA	2. TALDEA
10:00 -11:00	2. TALDEA	3. TALDEA	2. TALDEA	3. TALDEA	2. TALDEA
11:30 -12:30	2. TALDEA	3. TALDEA	2. TALDEA	3. TALDEA	2. TALDEA
15:00 -15:45	3. TALDEA	2. TALDEA	3. TALDEA	2. TALDEA	3. TALDEA
15:45 -16:30	3. TALDEA	2. TALDEA	3. TALDEA	2. TALDEA	3. TALDEA

Aukera onargarri bat izan daiteke gelako jardueretan parte-hartze normalizatua planifikatzea; izan ere, ikasgai edo arlo batzuek besteek baino aukera handiagoa ematen dute eduki espezifikoen bitartez 2H ikasteko. Beraz, hauek aztertu beharko dira: ordutegi-banaketa, noiz landuko den espezifikoki komunikazio-hizkuntza, eta noiz komeni den gainerako ikasleekiko interakzioa bultzatzea. Abiaturuko premisa hau da: hizkuntza ikasteko, biak ala biak dira beharrezkoak, bai kidekoekin harremanetarako eta lankidetzarako testuingurua, bai hizkuntza horretan lan espezifikoa.

IRAKASLE TALDE OSOAREN KOORDINAZIOA ETA PARTE-HARTZEA

Programan parte hartzen duten ikasleak gela arrunt batean sartuko dira. Ildo horretan, oso garrantzitsua da koordinazioz jardun dezatela murgiltze-programako irakasleek (HIPI) eta adierazitako gelako tutoreek eta irakasle taldeak. Orobat parte hartu beharko dute irakasle aholkulari eta orientatzaileek eta ikasketa-buruek.

Hizkuntza-gaitasuna ez da ikasle horiek duten zailtasun edo premia berezi bakarra. Hizkuntzaren gaineko jakintza sakontzeko eta arlo eta ikasgai guztietako curriculum-edukietan aurrera egiteko, ezinbestekoa da ikastetxeko profesional guztiek laguntza-estrategiak aplikatzea eta koordinazio sistematikoko dinamika bat ezartzea, ikasleekin haien lanerako plan pertsonalizatuaren arabera esku hartzeko.

Hizkuntza indartzeko irakasleen eginkizunak hauek izango dira:

- Hasierako balorazioa egitea, hizkuntzen ezagutza-maila zehazteko.
- Ikasleek murgiltze-gelan eta ohiko gelan zer ordutegi izango duten erabakitzea, gainerako irakasleekin elkarlanean.
- Hizkuntza-programazioa egokitzea eta bideratzea, ikasleen premietara eta A2 maila lortzera.
- Lanerako plan pertsonalizatua prestatzea, tutoreekin eta inplikaturako irakasleekin elkarlanean.
- Gainerako irakasleekin koordinatzeko prozesu bat ezartzea, jarraipena egiteko eta praktikara nola eramaten den ebaluatzeko.
- Material didaktikoak prestatzea eta egokitzea.

Irakasle talde osoaren eginkizunak hauek izango dira:

- Ikasle iritsi berrien harrera eta inklusioa erraztea, haien gaitasunak garatzen laguntzea eta ikastetxeko jardueretan parte har dezaten sustatzea.
- Material didaktikoaren, edukien eta ebaluatzeko tresnen hizkuntza egokitzea, lanerako indartze-plan pertsonalizatua kontuan harturik.
- Ikasleen aurrerapen eta ikasketen jarraipenean eta ebaluazioan parte hartzea.
- Hezkuntza-prozesuan kulturarteko ikuspegia txertatzeko jarduerak diseinatzea.

Era berean, zuzendaritza-taldeak HIPIen eta gainerako irakasleen koordinaziorako uneak eta eremuak zehaztuko ditu.